

Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak

Dinamikaren txostena

Gasteiz, 2017ko martxoaren 31a



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

AURKIBIDEA

01 /	SARRERA	2
02 /	PARTAIDEAK	3
03 /	DINAMIKAN JASOTAKO IDEIAK	5
03.1.	Ezaugarri pertsonalak _____	5
03.2.	Sare sozialetan _____	6
03.3.	Lagunartean eta aisialdian _____	6
03.4.	Kirolean _____	7
03.5.	Etxean eta familian _____	9
03.6.	Eskolan eta lan giroan _____	10
04 /	LANERAKO ARDATZ NAGUSIAK	11
05 /	ERANSKINAK	12

01 / SARRERA

Gazteak dira oraina baina baita etorkizuna ere. Eta euskara ere, oraina eta etorkizuna da, baina aurrerapauso handiak falta dira gazteen artean euskara bultzatzeko. Hori da Eusko Ikaskuntzak jorratu nahi izan zuena martxoaren 31n Gasteizen antolatu zuen mintegian: “Gazteak-euskara, binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak”.

Guztira 38 pertsona bildu ziren Gasteizko punturik altuenean kokatuta dagoen Oihaneder Euskararen Etxeko eraikinean, adin eta profil ezberdinak topatuz parte hartzaileen artean. Parte hartzaileen artean, unibertsitate ezberdinetako ikerlari, irakasle eta ikasleak, ikastetxeetako irakasle zein ikasle gazteak, eremu desberdinetako gazteak, kazetariak, euskaltzale eremuko eragileak, euskara teknikariak, edota instituzio ezberdinetako arduradun, ordezkariak eta langileak zeuden. Aipatzekoa, ia erdiak hogeitamar urtetik beherako gazteak zirela. Anitza, genero, adin eta lan eremuari dagokionez, anitza beraz.

“Profil ezberdinak zeuden parte hartzaileen artean. Anitza, genero, adin eta lan eremuari dagokionez. Hauetatik ia erdiak gazteak ziren”

Aurkezpen orokor baten ostean, non Eusko Ikaskuntzako arduradunek hitza hartu zuten, bi hitzaldi egon ziren jardunaldiari sarrera egiteko. Enrique Zuazuarekin sistema dinamiken inguruko hausnarketa egin genuen eta Asier Etxenike soziologoak ere hitza hartu zuen atsedenaldiaren aurretik: Arabako datu soziolinguistikoak elkarbanatu zituen tailerrari ekin aurretik. Biek ala biek, multimedia erabili zuten euren aurkezpenetan, oso lagungarria izan zena. Hitzaldien bideoak ikusgai daude Eusko Ikaskuntzaren webgunean (www.eusko-ikaskuntza.eus):

- [“Bizidunen eta Gizakien talde portaera: Sistema Dinamikoa”.- Enrique Zuazua](#)
- [“Euskararen erabilpenari buruzko datuen aurkezpena: diagnostiko laburra”.- Asier Etxenike.](#)

Atsedenaldiaren ostean, talde dinamikari ekin zitzaion, hori zelako mintegiaren punturik garrantzitsuenak. Guztira, bi ordu inguru egon ziren taldeak bilduta,

dinamizatzailerik bat lagun, ariketa dinamiko ezberdinak eginez. Sei talde ezberdinetan banaturik egon ziren bilduta eraikineko gune ezberdinetan.

Txosten honetan, bertan jasotako ideia nagusiak bildu nahi izan ditugu, Eusko Ikaskuntzak antolatutako jardunaldien laburpen eta ideia nagusien eskema gisa.

Erabili zen metodologia Fishbone metodoa izan zen eta hauek izan ziren planteatu ziren gaiak eta galderak:

Gazte euskaldunak izanik (hau da euskaraz irakurri, idatzi, ulertu eta hitz egin ONDO egiten dugula diogunean):

- Zein ezaugarri-gako pertsonalek eramaten gaituzte euskara hitz egitera? Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?
- Noiz erabiltzen dute gazteek euskara testuinguru konkretu batzuetan: Sare sozialetan?, lagunartean eta aisialdian?, Kirolean?, Etxean eta familian? Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak? Zer egin daiteke testuinguru bakoitzean euskararen erabilera gazteek artean sustatzeko?

02 / PARTAIDEAK

Abizenak, Izena	Erakundea
Abecia García, Sara	Heziketa zikloko ikaslea
Alkorta, Xabier	Eusko Ikaskuntza
Altuna, Olatz	Soziolinguistika Klusterra
Anton, Eneko	BCBL-en ikertzailea
Arnaez Telleria, Jaione	BCBL-en ikertzailea
Arratibel, Nekane	HUHEZI Mondragon Unib.
Carramiñana Miranda, Idoia	Deustuko Unib.
Diaz de Guereñu, Leire	EHUko Unib. ELEBILAB taldeko kidea
Dorronsoro, Iñaki	Eusko Ikaskuntza
Etxenike, Asier	Aztiker soziologia ikergunea
Fernandez de Landa Aguirre, Joseba	Gasteizeko Udaletxean teknikari
García Fernandez, Leticia	Mondragon Unib. ikaslea

Abizenak, Izena	Erakundea
Gil, Zuriñe	GEU elkarte
Goikolea, Igor	Kazetaria
Goirigolzarri, Jone	Deustuko Unib.
Goitia Gerenabarrena, Beñat	Trebiñuko Udaletxea
Gómez de Segura Elícegui, Iñaki	Heziketa zikloko ikaslea
Idiazabal, Itziar	UNESCO katedra
Irizar Mezo, Asier	HUHEZI Mondragon Unib.
Iztueta, Anjeles	Eusko Ikaskuntza
Larrañaga, Jokin	Arabako Foru Aldundia
Martin Arruabarrena, Eneko	Mendizabala institutua
Martinez, Manu	Koldo Mitxelena Institutua
Martinez de Luna, Iñaki	Soziolinguista
Mendiola Egaña, Lorea	EHUko Irakasle ikerlaria
Merchan, Amaia	Koldo Mitxelena Institutua
Moreno, Manuel	Topagunea
Ortega Etcheverry, Ane	Begoñako Andra Mari Irakasleen Unib. Eskola
Rueda Carro, Nagore	Mendizabala institutua
Salaberria, Urkiri	Astigarrako udala. Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Jaiak arloak
Suberbiola, Pablo	Soziolinguistika Klusterra
Sueskun, Leire	Euskara maite dut! Arabako Errioxako euskararen ataria
Uriarte Ayo, Jose Ramón	EHU Unib.
Vadillo, Alex	Geu Elkarte / Euskara teknikaria udalean
Viana, Unai	Lan eta Jolas Herriko Elkarte
Yurramendi, Yosu	EHU Unib.
Zuazua, Enrique	Deusto Tech.
Zubia, Asier	Koldo Mitxelena Institutua

Dinamizatzaileak:

Zuriñe Gil, Igor Goikolea, Asier Etxenike, Unai Viana eta Alex Vadillo.

03 / DINAMIKAN JASOTAKO IDEIAK

03.1. Ezaugarri pertsonalak

Noiz erabiltzen dute gazteek euskara?

- Lehen hizkuntza denean, askotan, gazteek ez dute aitzakiarik. Hala ere, **identitatearen kontzientziak** eta **inguruak** lagunduta ere erabiltzen dute gazteek euskara. **Balioak** ere indarra dauka, are gehiago **balio instrumentala** denean hau.
- Lehen hizkuntza izatearekin batera, gazte askok **erraztasun handiagoa** dute euskaraz hitz egiteko, eta hori ere, arrazoi bat izan daiteke, **ohiturarekin** batuta. **Ardura militanteak** ere, pisua dauka. Ohiturak ez badira, **sozializazio prozesuek** ere indar nabarmena izan dute eta dute egun ere.
- Ezagutzak pisu nabarmena dauka: hizkuntza bat **ezagutzeak** eta hau **maitatzeak** indar handia dute.

Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?

- **Gaitasuna hobetu:** pisu nabarmena dauka, are gehiago Araba bezalako herrialde batean. Gure buruei erakutsi behar diegu baietz, ahal dugula, eta gazteak garenean, zer esanik ez.
- Baina zaila da euskaraz aritzea edo ikasi nahi izatea motibaziorik gabe bada. **Motibazioa** da arrazoi nagusietako bat gazteak euskaraz aritzeko.
- **Inguru aktiboa euskalduna izateak**, beraz, garrantzi handia dauka.
- **Testuinguruak eragindako ohiturak:** hiru hitz dira, hitz potoloak, baina euskaraz aritzeko arrazoi nagusiak direnak ere bai.
- **Harreman sareak:** harremanetan jartzeko moduak, pertsonak, eragileak ... Egunero, orduro ari gara harremanetan jartzen, aurrez aurre ez bada ere, mugikorrarekin edota beste tresna batzuekin. Erabiltzen ditugun modu hauek eta nola erabiltzen ditugun, hor dago gakoa.

Zer egin dezakegu ezaugarri pertsonalei dagokienez euskararen sakontzeko?

- **Irakaskuntza eta hezkuntza ereduak aldatu** edo hobetu behar dira. Honekin lotuta, gazteak prozesuaren parte egin behar ditugu, norberak bere burua hartuz “**eredugarri**” moduan.

- **Esparru berriak sortu** behar dira egun daudenek ez badute funtzionatzen edo ez badute euskara bultzatzen laguntzen. Gainera, lan taldeetan eraginez (lehenengo hitza euskaraz botaz, adibidez), **harreman sareen esparruan eragin** dezakegu.

03.2. Sare sozialetan

Noiz erabiltzen dute gazteek euskara?

- **Edukia** euskarazkoa bada: euskaraz hitz egin behar dute.
- **Sare sozialetan bi profil erakusteko: lidergoa eta irudia.**
- **Harreman sarea euskalduna delako.**

Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?

- Tresna nagusia **euskarazko tresna** bat denean; nortasunaren indarra
- Nahi dutelako eta euskaraz pentsatzeko denbora dutelako. Ahozko orduan gertatzen ez dena: **nahia eta denbora.**

Zer egin dezakegu euskararen erabilera sustatzeko?

- **Tresna propioak sortu**, soilik euskarazkoak; YouTuber euskalduna, adibidez.
- **Sare sozialen erabilera eskolan ikasi.**
- **Gaztelaniaz erantzuten badute ere, euskara erabili.**

03.3. Lagunartean eta aisialdian

Noiz erabiltzen dute gazteek euskara?

- Ideologiak daukan indarra aipatzekoa da. Euskaldun sentitzen diren gazteek edo euskaldun izan nahi duten gazteek hala erakusten dute euren lagunaren aurrean. Modu honetan, erreferentzialtasuna lortu nahi dute, harreman berezi bat lortuz gazte konkretu batzuekin. Hitz bat erabili beharko bagenu hiru hauek laburtzeko, **kontzientzia** hitza erabiliko genuke.
- **Lidergoak** ere zeresan handia eman dezake: talde bateko liderrek eragin handia daukate.

- **Ohitura eta zaletasuna** dela eta, gazte askok euskaraz ekiten diete euren harremanetan.
- Hezkuntzak ere eragina dauka. Askotan, **titulu konkretu bat lortzeko**, gazteek konfiantzazko jendea baliatzen dute horretarako. Lagunekin praktikatzen dute euskara, titulua lortzeko.

Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?

- **Egoerak, lekuak eta joerak** eragiten dute gazteek euren aisialdian euskaraz hitz egitea, batez ere, taldekako interakzioa dagoen kasuetan.
- Binakako interakzioetan, aldiz, **ohiturak** dauka pisu nagusia gazteak lagunekin daudenean.

Zer egin dezakegu euskararen erabilera sustatzeko?

- **Ohitura apurtzeko dinamikak sortu**, koherentzia bultzatuz eta, azken batean, euskaraz hitz egiteko nahia eta beharra elkarri kutsatuz.
- Gazteen gainean azterketa ezberdinak egitea baliagarria izan daiteke, aipatu ditugun **liderrengana**, behar bada, helduz. Gainera, talde euskaldunak aprobetxatu behar dira, joerak bultzatzeko baina batez ere **beste talde batzuk motibatuzko**.
- **Aisialdi munduak euskaratzeak**, talde euskaldunak bultzatzearekin batera, lagungarria izan daiteke modu pertsonalean euskara erabiltzeko. Egun dagoen arazoetako bat **multimedia eta komunikabideak** dira: hedabide euskaldunetan apustuak egin behar dira.
- Musika, kirola... Gazte kulturen eragiteko gai izan behar gara, **euskarazko kulturari garrantzia emanez**.

03.4. Kirolean

Noiz erabiltzen dute gazteek euskara?

- **Kideen arteko harremanak** euskarazkoak direnean, modu naturalean erabiltzen dute euskara euren artean komunikatzerako orduan.
- **Lidergoarekin lotuta, kirol horretan erreferente euskaldunak izateak** laguntzen du. Euren kiroleko erreferente bat euskaraz aritzen dela ikusten badute, euskaraz hitz egiten laguntzen du honek. Gainera, zeresan handia ere eman dezake **kirol konkretu batzuek euskararekin duten lotura**

sinbolikoa. Kirol hauetako batzuk, lirateke, besteak beste: pilota, mendia, herri kirolak... Euskal ohiturarekin zerikusia dute.

- Kirol konkretu batzuk albo batera utziz, **kirol horri dagokion diskurtsoa irradi edo telebista bidez ezaguna izatea** ere oso baliagarria izan daiteke. Alegia, ondo sozializatuta badago, eta euskarazko hedabideek laguntzen badute, kirol hori ikusterakoan edo praktikatzekoan euskara nagusi izango da.

Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?

- **Kirola egitekoan euskararekin gozatzen dutelako gazteek.** Beste esparru batzuetan, derrigortuta erabiltzen badute ere, euskararekin goza dezakete gazteek, are gehiago, taldeak bakarrik erabiltzen badu eta gainontzeko taldeek ez dutenean erabiltzen.
- Klub edota federazio ezberdinetan, **hizkuntza irizpideak esplizituak direnean.** Talde ezberdinek, ez dute beste aukerarik ematen: euskaraz praktikatu behar da kirola, taldean eta entrenatzailearekin; beraz, hein handi batean “derrigortuta” praktikatzen dute euskara.

Zer egin dezakegu euskararen erabilera sustatzeko?

- Gakoetako bat, **euskara lehentasunezko hizkuntza izatea** izango da. Honetarako, eta euskara lehentasunezko hizkuntza izateko, euskara ikastaro espezifikoak egon beharko dira, hizkuntza protokolo batzuk bermatuz. Instituzioek ere euren papera jokatu behar dute honetan, zenbait neurri ezarri.
- **Entrenatzaileak euskararen aldeko liderrak** badira, gazteek beste erreferente bat izango dute: garrantzitsua da entrenatzaileak euskaraz jakitea. Entrenatzailea formatzen bada eta hezitzaile papera hartu behar du. Praktika onak bilatzen baditu eta bere estrategia propioak ikertzen baditu, praktika horiek zabaltzeko aukera izango du. **Lider figura horrek bere funtzioa balioan jarri behar du.**
- Hedabideak aipatu ditugunez, **telebista edo irradi programa batzuk prestigiatu** behar ditugu. Euskaraz egiten diren jardueri garrantzia ematen, hizkuntza ohiturak aldatzeko metodologiak jardueretara eta talde ezberdinetara eramanez. Honekin batera, nola ez, **euskaraz egiten diren jardueri lehentasuna** eman behar zaie.

03.5. Etxean eta familian

Noiz erabiltzen dute gazteek euskara?

- **Hizketa gaiaren** arabera, euskara lehentasunezko hizkuntza izan daiteke. Modu ez teknikoan jorratzen bada euskara, hizkuntza lehentasuna izan daiteke. Gainera, **errutinek eta egunerokotasunak** derrigortuta edo markatuta ere, euskara tresnetako bat izan daiteke.
- **Erraztasuna.** Hitz hau erabiltzen dugunean, askotan, Araban batez ere, gaztelania datorkigu burura. Hala ere, badaude euskara lehentasun moduan duten hizkuntzan, alegia, familian errazago erabiltzen dutenak euskara gaztelania baino.
- **Kontzientziaren** pisua aipatzekoa da. Erabaki hartze ezberdinek, modu esplizituan erabakia hartzeko edo adosteko baldintzak sortzen dituzte. Euskararekin lotuta badago ere, bizitzako beste arlo batzuetan aplikagarria da hau.

Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?

- **Unea, momentua.** Hori da euskaraz etxean eta familian hitz egiteko arrazoi nagusia. Momentu konkretu batean, biek edo taldeko kideek badakite, gaiak, uneak, agobioak eta beste faktore batzuek zerikusirik handia izango dute.

Zer egin dezakegu euskararen erabilera sustatzeko?

- Familia giroan euskaren erabilera bultzatzeko, **maitasun egoerak sortu** behar dira. Gazteek familiaren maitasuna somatu behar dute euskaraz aritzerako orduan. Gai sentsiblea denez maitasuna bera, egoera horiek sortzerako orduan askoz modu arduratsuagoan erabiliko dugu hizkuntza.
- Hizkuntza goxoa da euskara, eta hori transmititu behar dugu euskaraz aritzerako orduan. Haserrea sortzen duten egoeren aurrean, **goxotasuna eta lasaitasuna izan behar dira nagusi euskara praktikatzerako orduan:** gaiarekin sentsibilizazio handiagoa lortu daiteke, enpatia lortuz gure hurbilekoekin.

03.6. Eskolan eta lan giroan

Noiz erabiltzen dute gazteek euskara?

- **Gaitasuna.** Lan eremuetan euskaraz hitz egiteko gai badira langile edo ikasleak, ez dago, askotan gutxienez, aitzakiarik. Euskara erabiltzen dute harreman formaletan bilerak egiteko edo klaseak emateko. D ereduan, adibidez, euskara erabiltzen dute ikasleek, gutxienez irakaslearekin erlazioa dutenean.
- **Bihotza.** Nahi edo behar dutelako erabiltzen dute askotan gazteek euskara. Hala ere, bihotzak ere indarra dauka. **Korrika bezalako ekimenekin**, errazagoa da gazteengana iristea, helduekin alderatzen badugu gutxienez. Dinamika hauetan sakontzen bada, errazago iritsi gaitzke gazteengana, Araba bezalako herrialdean erakutsi den moduan.
- **Konpromisoa.** Hasiera batean euskaraz aritzeak, konpromiso bat erakusten du. Gainontzeko langileekin izan beharreko konpromiso bat eta, batez ere, euskarekiko duten konpromiso bat.

Non eragin genezake gehiago edo ta non jartzen ditugu lehentasunak?

- **Lidergoa.** Euskaraz aritzeko, batez ere taldekako interakzioa dagoenean, liderraren funtzioak oso garrantzi handia dauka. Liderra, klasean edo lan giroan, ez da irakaslea edota “burua” izan behar; egia da, irakasle edo jabe batek euskaraz hitz egiten badu, besteek, modu errazagoan hitz egingo dutela euskaraz. Baina taldean bertan ere, lider bat badago eta honek euskaraz hasten baditu elkarriketa/azalpenak/bilerak, errazago hitz egingo dutela gainontzekoek euskaraz. Edozein arlotan izan daiteke baliagarria lidergoaren irudia, baina eskolan edo lan giroan, garrantzi handiagoa dauka honek.


Zer egin dezakegu euskararen erabilera sustatzeko?

- Identifikazio bat eman behar da: liderra nor den edo lidergoa aurrera nork eramaten duen aztertu beharra dago. Hau identifikatuz gero, pertsona honengan influentzia sortu daiteke, honek euskara gehiago erabiltzeko. Laburbilduz, liderrak garrantzi handia daukala esan badugu, **liderrak identifikatu behar ditugu.**
- Metodologia. Liderrari indarra emateaz gain, taldean bertan **euskara indartzeko metodologiak** behar dira. Klaseari dagokionez, hezkuntza arloan eman beharko dira hauek, irakaslearen partetik edota hezkuntza instituzio ezberdinek eginez hau. Aldiz, lan eremuan, enpresaren partetik ere




metodologiak eraman behar dira aurrera, liderra identifikatuta dagoenean edo hau identifikatu gabe dagoenean ere.

04 / LANERAKO ARDATZ NAGUSIAK

Bi bloketan banatu ziren lanerako ardatz nagusiak: ikerketa lerroak eta eragileentzako ekintza proposamenak.




05 / ERANSKINAK





Identitatea / Atxikimendua



Erraztasuna

Ohitura









- Kirola egitean 1. taldea
- Etxean eta Familian 2. taldea
- Sare sozialak 3. taldea
- Eskolan edo/eta lan-giroan 4. taldea

Titulua lortzeko

Ohitura apurtzeko dinamikak:

- Bikotean eragin: euskaraz hitz egiten sartu txipa aldatzeko : KUTXATU
- Gogoeta landu (bikoteka)
- Koherentzia landuz **Ohitura**
- Erantzunkizun profesionaletik planteatuz
- Ikastaroak, sentsibilizazio saloak...

Binakako interakzioetan?

Lagunekin eta aisialdian 5. Taldea

Ideologia

Harremanari berezitasuna emateagatik

Erreferentzialtasuna

Ohitura

Kontzientzia

Eskatu dietelako (hezitzaileek)

Hizkuntza gaitasuna

Lidergoa

Zaletasunak

Taldeko interakzioetan?

Aprobetxatu talde euskaldunak eta besteak motibatuzko erabili

- Ikertu: zer edo zer berritzailea eskaintzeko
- Liderrengana helduz
- Formazio/sentsibilizazioa eskainiz **Egoera, lekua, joera**
- AUKERAK zabalduz (zer nahi dute?)
- Jarraipena eginez
- Sare sozialak

BAi euskaraz hitz egiten dugul!

Ezaugarri pertsonalak

Testuinguruak

- 1. taldea
- 2. taldea
- 3. taldea
- 4. taldea
- 5. taldea

Nortasuna / Identitatea

Sozializazio prozesua (ohiturak)

Motibazioa

Harreman sareak

- Esparru berrietan parte-hartuz
- Kuadrilan eraginez
- Kultura identitatea landuz (erreferenteak bilatu)
- Lehenengo hitza euskaraz eginez
- Etxea?

Ingurunea/Testuingurua

Gaitasuna

BULEGO NAGUSIAK

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48
20007 - DONOSTIA
T. 943 310 855 | Fax 943 213 956
E: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ARABA

Pedro Asua 2 - 2 / 63 bulegoa
01008 - GASTEIZ
T. 945 231 552
E. gasteiz@eusko-ikaskuntza.eus

BIZKAIA

Uribitarte ibilaldia 10. Behea
48001 - BILBO
T. 944 425 287
E. bilbo@eusko-ikaskuntza.eus

IPAR EUSKAL HERRIA

51, quai Jauréguiberry
64100 - BAIONA
T. 559 598 290 | F. 559 461 844
E. baiona@eusko-ikaskuntza.org

NAFARROA

Gaztelu plaza, 43 bis, 4. D
31001 - IRUÑEA
T. 948-222105
E. iruna@eusko-ikaskuntza.eus



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez